

## **BALORE PROPOSAMENA:**

Aukeratu dogun arazoa ikasten ari diren gazteentzat lanbide falta da, hau da, ikasle gazteei oso zaila egiten jake lanbide bat lortzea ikasten ari diren bitartean. Ikastea eta lan egitea bateragarri egiten dauan lan bat topatzeko zailtasuna dago. Lan txukuna eta hazkunde ekonomikoaren nazio batuen jasangarritasun helburuarekin lotzen dogu eta uste dogu oso garrantzitsua dala arazo honi konponbidea ematea, gazteen autonomia ekonomikoa lortzeko.

Proposatzen dogun arazoaren konponbidea hurrengoa da: Mugikorreko aplikazio baten bitartez batxilergoan, lanbide heziketan eta unibertsitatean ikasten ari diran ikasleei ikasketekaz bateragarri diran lanak eskeiniko deusaguz, aldi berean, epe laburreko eta jardunaldi murriztuko langileak behar dabezan enpresei lan egiteko prest dagozan ikasleak eskeiniko deusaguz.

Alde batetik, erabiltzaile gazteek aukeratuko gaituzte eurentzat aproposak diran lan aukera ugari eskeiniko doguzalako eta oso arinak izango garelako. Eta bestetik, enpresak gugaz lan egitea aukeratuko dabe emoten dogun zerbitzua arina eta fidagarriaizango dalako eurentzako, askotan langileak aurkitzeko zailtasunak izaten bait dituzte.

Gure apparen funtzionamendua hurrengoa da: Alde batetik, gazteak gure appean euren lehentasunak zehazteko, filtroak (zer gura dabe? zer ez? trebeziak? ahuleziak?) eta euren CV jarri beharko dabe appean "filtroak" ipintzen dauan atalean. Ondoren, appak emoten dauazan aukerak ikusi ahal izango dira. Hurrengo pausua erraza da enpresak eta langileak kontaktuan jartzen doguz. Bestalde, enpresak gure appean aurkezteko ez dabe arazorik izango, hau da, dohainik izango da. Bakarrik, gugaz kontaktuan jarri beharko dira gmail, appa, telefonoz, etab. bidez eta guk appean eguneratuko doguz.

ORDUKA .....

GOIZEZ .....

ARRATSALDEZ .....

ZENBAT EGUN? .....

Filtroak


CV txertatu

INFO

Zer eskaintzen dogu?

Zein enpresek egiten dabe lan gugaz?

Tel: 608 44 56 32



## ZURE PROBINTZIAKO ENPRESAK

EMPRESA	PUESTO
1. VOLCAN	Practicante de Logística
2. CAMARA DE COMERCIO NORDICA	Practicante de Desarrollo y Comercio Internacional
3. RANSA	Practicante en el área de Logística
4. GLAXOSMITHKLINE PERU	Practicante de Finanzas
5. ALICORP	Practicante en el Área de Distribución (CD Ransa)
6. NESTLÉ	Practicante Ventas y Marketing
7. BACKUS	Practicante de Planeamiento financiero
8. KIMBERLY CLARK	Practicante de Business Support
9. EL PACIFICO PERUANOSUIZA CIA SEG Y REA	Practicante de Control Técnico
10. SALOG	Practicante de Planeamiento y Gestión
11. SCOTIABANK	Practicante de Comercio Exterior
12. CITIBANK	Trainee
13. BROOM PERU	Practicante en el área de Agenciamiento
14. STOCKHOLM	Practicante de Proyectos Internacionales
15. QUIMTIA	Practicante de Administración y Finanzas
16. PIGAMALION CONSULTORES	Practicante de Analista de Marketing
17. AUSTRAL	Practicante de Logística
18. LAN	Practicante de Operaciones
19. CAMARA DE COMERCIO DE LIMA	Practicante de Comercio Internacional
20. RIMAC SEGUROS Y REASEGUROS	Ejecutiva de Cuentas

KLIKATU ZURE AUKERA

Prezioari jagokonez, gazteak irabaziko daben %8ko komisioa kobratuko deutzagu eta enpresei be prezio bat kobratuko deutzagu gure appean egoteagaitik. Horrezaz gainera, enpresei diru kopuru bat kobratuko deutzagu publikatzen daben lanpostu bakoitzagatik.

Amaitzeko, gure lehiakideetatik desberdinduko gara bakarrik 16 eta 26 urte tarteko ikasleei lan aukerak emongo deutzaguzalako eta epe laburrekoak eta jardunaldi murriztukoak bakarrik izango diralako. Adibidez, InfoJobs, Infoempleo edo BeBeetik desberdintzeko.